

LARRABETZUKO UDAL MUGARTEAN ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTE ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.

I. TITULUA. XEDEA, EZARPEN-EREMUA ETA DEFINIZIOAK

I. KAPITULUA. XEDEA ETA EZARPEN-EREMUA

1. ARTIKULUA.- XEDEA.

Ordenantza honen xedea Larrabetzun dauden animaliak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea da, udalerrian erroldatuta edota erregistratuta dauden edo ez dauden kontuan izan gabe, eta jabeen edo edukizaitelen bizilekua edozein izanda ere, ingurumen- osasunerako eta pertsonen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako egon daitezkeen arriskuak aintzat hartuta. Horretarako, animaliek jaso beharreko gutxieneko arreta zehaztu da tratu, garbitasun higieena, zaintza, identifikazioa, babes eta garraioari dagokienez. Horrez gain, establezimendu berezietan egoteari, horien osasun-laguntzari, merkaturatzeari eta salmentari buruzko arauak zehaztu dira.

2. ARTIKULUA.- SALBUETSITAKOAK.

Honako arlo hauek ordenantza honen ezarpen eremutik kanpo daude, bestelako araudi berezia dutelako:

- a) Ehiza.
- b) Arrantza.
- c) Basoko animaliak euren ingurunean zaindu eta babestea.
- d) Zezen-ikuskizunaketa/edo bigantxa, idi eta zaldiekin egiten diren festak.
- e) Abeltzaintza, gizentzeko helburuarekin hartutako abelazkuntza, hain zuzen, hori bestelako herri administrazio eskudunek kontrolatzen dutenean.
- f) Esperimentaziorako edo bestelako helburu zientifikoetarako erabilitako animaliak.
- g) Hegazti-tiroko lehiaketak.
- h) Hainbat kirol, elementu nagusia etxeko animaliak direnean.
- i) Arriskutusak izan daitezkeen animaliak. Animalia hauei aplikatuko zaie, Larrabetzuko Udalak, 20115eko irailaren 30eko ohiko batzarrean onartu zuen eta BAO, 222. zk. 2015eko azaroaren 18an argitaratu zen Larrabetzuko animalia arriskutsuen edukitza arautzen duen ordenantza. 2

II. KAPITULUA. DEFINIZIOAK

3. ARTIKULUA. DEFINIZIOAK

- 1) Ordenantza honen ondoretarako, etxeko animalia izango da bizitzeko pertsona baten laguntza behar duena.
- 2) Animalia etxekotua izango da, basoan aske jaio arren, pertsonen alboan egotera ohitu dena, eta, azkenean, bizitzeko pertsonen laguntza behar duena.
- 3) Gatibu dauden animalia basatiak izango dira, aske jaio arren, gatibu daudenak, etxekotzen irakatsi gabe.
- 4) Animalia arriskutsuak dira basoko animaliak izan eta animalia etxekotu edo laguntzako animalia gisa erabili arren, horren oldarkortasuna kontuan izan gabe, euren espezieak edo arrazak direla-eta pertsonak edo beste animaliak hil edo zauritu ditzaketanak, bai eta bestelako kalteak eragiteko gai direnak ere.
Halaber, animalia arriskutsuak izango dira, berebat, arauz zehaztutako animalia etxekotuak edo laguntzako animaliak, eta, bereziki, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren I. eta II. ERANSKINETan zehaztutako txakurren espezieetakoak eta Dekretu horren 10.1.c) artikulua arabera adierazitakoak.
- 5) Ustiapenerako animaliak dira, gizakien ingurunera egokituta egon arren, gizakiak irabazizko helburuetarako erabiltzeko hazten dituenak, dela animaliak dela horiek sortutako ekoizpenak.
- 6) Edukitzeko baldintza berezien mende dauden txakurrak dira, horien inguruabar etologikoak direla eta, udal-agintaritzak horiek edukitzeko baldintza berezien mende kokatzen dituenak.

II. TITULUA. ANIMALIAK EDUKITZEKO ARAU OROKORRAK

I. KAPITULUA. IZAERA OROKORREKO ARAUAK +

4. ARTIKULUA. BETEBEHARRAK

1. Orokorrean baimendu egiten da etxe partikularretan konpainiako etxeko animaliak edukitzea, baldin eta etxeak, etxeko instalazioek eta animalien kopuruak zein tamainak horretarako aukera ematen badute osasunaren eta garbitasunaren aldetik, eta auzokideentzat, animalientzat edo beste edonorentzat arrisku egoerarik edo eragozpenik sortzen ez baldin bada.
Debekatua dago balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, zabaltzetan, lorategietan edota bestelako edozein lokaletan animaliak edukitzea, estabulatzea edo erdi estabulatzea, baldin eta animaliek auzokide zein oinezkoei beren usain, zikinkeria, ulu edo zaunkekin traba egiten badiete. Ibilgailuak ez dira izango ohiko bizilekuak.
2. Debekatua dago hirigunean ustiaketa animaliak hazteko helburuz edukitzea, eta ezin izango dira estabulatu etxe partikular, terraza, zabaltza, ganbara, soto, trasteleku, bodega, patio eta antzekoetan.
3. Basa animaliak parke, zoologiko edo antzeko helburua duten bestelako lekuetatik kanpo edukitzeko indarrean dagoen legeria bete beharko da kasu bakoitzean, eta jabea arduratuko da auzokideentzat inolako arrisku edo eragozpenik ez sortzeaz. Horregatik debekatua dago animalia hauek solte lagatzea gunere irekietan edo jendea dabilen lokaletan.
4. Animalien jabeak edo edukitzaileak behartuta daude animaliei janari eta zainketa egokia ematera, gaixotasunen tratamendua dela zein osabidea dela, animaliak ahalik eta ongien bizitzeko, bai eta agintarietako ezarritako administrazio neurriak zein osasunaren prebentzioari buruzkoak betetzera ere. Horiez gain, animalia mota bakoitzak dauzkan ezaugarrien arabera bizitokia eman beharko diete jabeek animaliei.
5. Aparkatutako ibilgailuen barruan animaliak badaude, ezinezkoa izango da ibilgailu horiek lau ordu baino gehiago aparkatuta egotea, eta, udan, ibilgailuak itzalean kokatu beharko dira, une oro aireztapena errazteko helburuarekin.

6. Animaliak ondo babestuak egon daitezzen, erabat debekatuak daude:

- a) Animaliak bortizkeriaz edo substantzia toxikoak emanez akabatzea, bide zein gune publikoetan substantzia toxikoak gordailutzea eta norbere zein inoren animaliak zauritzea, ankerkeriaz tratatzea edo tratatu txarrak ematea, etxeko animalia, animalia etxekotua zein basa animalia izan.
- b) Animaliak antzerki, diskoteka, pelikula edo propaganda jardueretan erabiltzea, baldin eta erabilera horren ondorioz, animaliak sufritu edo mina hartzen bada edota degradatzen bada.
- c) Animalien arteko borroka-saioak, publikoak zein pribatuak, baldin eta bertan animaliak akabatu, zauritu, izutu eta erasotzen badira.
- d) Animaliei gorputz atalen bat moztea, ez bada, behintzat, albaitariaren kontrolpean helburu terapeutikoz, arrazoi funtzionalez edo arrazaren ezaugarriari eusteko egina.
- e) Animaliak abandonatzea.
- f) Adin txikikoei animaliak saldu, laga edo ematea.
- g) Animalien salmenta ibiltaria, baimendutako merkatu eta azoketan izan ezik.
- h) Animaliak administrazioaren kontrolik gabe klinika eta laborategiei saltzea.
- i) Alkohola, drogak eta botikak ematea edo kalte fisikoak zein psikikoak eragin diezazkien edozein manipulazio artifizial egitea, bereziki lehiaketetan errendimendua handitzeko bada.
- j) Espezie babestuetako animaliak saltzea, edukitzea eta erakustea, arlo honetako legeria kontuan izan gabe.

5. ARTIKULUA.- ANIMALIEN ZENTSUA ETA IDENTIFIKAZIOA

1.- Txakurren jabeek edo edukitzaileek horiek identifikatu eta udalean hilabeteko epean erregistratu behar dituzte, jaiotzatik edo hori eskuratu dutenetik zenbatuta, baldin eta udalerrian modu iraunkorrean edo hiru hilabete baino gehiago badaude. Betebehar horrek beste laguntzako animaliak ere barnean hartuko ditu.

2.- Animaliek beren zentsu identifikazioa eraman beharko dute beti nahitaez. Animalia ez erroldatzea, edo epez kanpo egitea, arau haustea izango da animalia babesteari buruzko Legearen 27.1.a artikuluan xedatutakoari jarraituz. Identifikazioa egiteko, txakurrei euren lepoaren ezker aldean mikrotxipa edo osagai mikroelektronikoa ezarriko zaie. Hori foru- edo udal-albaitari ofizialak edo animalia txikietarako gaitutako albaitari pribatuak gauzatuko du. Mikrotxipa jartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan animalia identifikatzeko metodo elektronikoen erabilera arautzen duen Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak 1993ko maiatzaren 5ean emandako Aginduan eta ezar daitezkeen bestelako arauetan xedatutakoa beteko da. Animalia identifikatzeko unean, albaitari ofizial edo gaitu ofizialak Kartilla Ofiziala eta berori identifikatu nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan Animalia Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (REGIA/AIEO) inskribatzeko eskabidea beteko ditu, azken hori 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren bidez sortu dena. Interesdunek agiri hori albaitari ofizialen edo gaituen bulegoetan jaso ahal izango dute. Horietako ale bat albaitari jardulearen esku geratuko da, eta beste biak animalien jabeak jasoko ditu. Horrela, jabeak ale bat Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailari igorri beharko dio, NANaren fotokopiarekin batera, datuak AIEOn inskribatu ahal izateko.

3.- Larrabetzuko Udalak AIEOtik aterako ditu datuak eta animalia udalerrian erroldatuta geratuko da.

4.- Animalien jabeak AIEOri erregistroan jasotako datuetatik edozeini buruz egindako aldaketa jakinarazi beharko dio, horien artean:

- a) Titularrari edota animaliar buruzko datuen aldaketa.

- b) Titulartasun-aldaketak.
- c) Animaliairen baja, heriotzarengatik edo EAETik kanpora egindako behin betiko lekualdaketarengatik.
- d) Desagerpena, hori galdu edo lapurtzeagatik.

Jakinarazpena 10 eguneko epean egin beharko da, galera edo lapurreta gertatzen denean izan ezik. Kasu horietan, 48 orduko epean egin beharko da, galera edo salaketa egiten denetik zenbatuta, salaketaren kopia aurkeztuta.

Aldaketaren edo gorabeheraren eskabidea, NANaren kopia erantsita, interesdunek udalean edo Foru Aldundian edo albaitari gaituen bulegoetan eskuragarri izango duten agiria beteta egingo da. Bada, a), b) eta d) puntuetan ezarri kasuetan, interesdunak kasuan kasuko alea AIEOri igorriko dio.

Bestalde, b) atalean ezarri kasuetan, hots, salmentaren, dohaintzaren edo indarreko legerian ezarritako moduetatik edozeinen ondorioz eskualdaketa gertatzen denean, orduan alderdi jarduleek aldaketa egiteko eskabidea bete beharko dute, zenbatuta eta laukoiztuta. Albaitari ofizialak edo gaitutako albaitariak eskualdaketa jaso eta onetsi beharko du Kartilla Ofizialean idatzoharra eta ikusonespena. edo Aldundiak egingo du, bertan erabilitako agiriaren zenbakia zehaztuta. Agiri bat alderdi jardulearen esku geratuko da, eta beste bi ale jabe berriaren esku geratuko dira. Azken horrek ale bat hilabeteko epean AIEOri igorri beharko dio, eskualdaketa-datatik zenbatuta.

Animaliairen jabeak ordainduko ditu identifikazioa, osasun liburuxka eta erroldan izena ematea.

Edozein salmenta edo lagapen eginez gero, jabe berriari animaliak behar bezala identifikatuta, erroldatuta eta Kartilla Ofiziala gaurkotuta emango zaizkio.

Artikulu honetan jasotako errolda-identifikazioan egindako aldaketak Erregistroari jakinarazi ez bazaizkio, arau-haustea gertatuko da Animaliak Babesteari buruzko Legearen 27.1 a) artikulua aintzat hartuta.

Abenduaren 23ko 50/1999 Legeak, hain zuzen arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateko erregimen juridikoa arautzen duenak, eta hori garatzeko den martxoaren 22ko 287/2001 Errege Dekretuak zehazten dituzten animalien jabeak, hazleak, zein edukitzaileak, behartuta daude haiek arautegiak zehazten duen eran identifikatu eta erroldatzeko.

6. ARTIKULUA .- EDUKITZEAREN BALDINTZAK

1.- Animaliairen edukitzaileak horrek sortutako kalteen, galeren eta eragozpenen gaineko erantzukizuna izango du, Kode Zibilaren 1905. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.- Animaliairen edukitzaileak eginkariak bide eta esparru publikoetan geratzea saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu.

Atal honetan ezarritakoa betetzen ez bada, arau-hauste arintzat joko da

3.- Erroldatuta edota erregistratuta dagoen animaliairen edukitzaileak edo horrek baimendutako pertsonak, hala denean, horren galera salatu beharko du.

7. ARTIKULUA.- EDUKITZEAREN MUGAK

1.- Orokorrean, etxebizitza partikularretan etxeko animaliak edo animalia etxekotuak eduki daitezke.

2.- Orokorrean eta arrazoi etologikoak direla medio, 40 m² bakoitzeko urtebete baino gehiago duen txakur bat bakarrik hartu ahal izango da, bai eta Jabetza Horizontalari buruzko Legearen mende dauden ondasun higiezin kolektiboetan, bai balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, teilatu lauetan, lorategietan edo bestelako lokal nahiz hiri-lurrean ere.

Udal-agintariak interesdunari animaliak edukitzeari buruzko inguruabarrekin zerikusia duen informazioa eta agiriak eman edota animalia bere esku jartzea eskatu ahal izango dio. Halakorik betetzen ez badu, arau-hauste larria eragingo du, ordenantza honen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

8. ARTIKULUA.- BERTAN BEHERA UTZITAKO EDOTA HILDAKO ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA

1. Bide eta errepide publikoetan agertzen diren animalia hilen gorpuak Udalak edo zerbitzua kudeatzen duen enpresak jasoko ditu. Ez ditu jasoko, ordea, Lurzoruaren Legearen arabera lurzoru ez urbanizagarria kalifikatutako lekuetakoak, udal lurrak ez badira behintzat. Egoerak aginduta, udal zerbitzuek animalia hildakoren bat jabetza pribatuko lurren batetik jaso behar badute, sortutako kostuak animalia jabeak hartuko ditu bere gain, eta hala ez balitz lurraren jabeak.
 2. Herrian zehar edo herri inguruko bideetan zehar jaberik edo eramailerik gabe dabilen animalia jaso egingo da, eta dagokion zerbitzura eramango, propioa nahiz itundua dela, udal administrazioak eskatuta.
 3. Identifikaziorik gabeko animaliak jasota edukitzeko epea gutxienez gehienez 30 egun naturalekoa izango da. Eta epe horretan inork ez badu haren galde egin, ondoko hautakoren bat egin ahal izango da: animalia jabe egin, beste norbaiti eman edo hura hil. Animaliak identifikaziorik baldin badarama haren jabeari animalia jaso edo erretenitu dela jakinaraziko zaio eta jabeak 7 egun balioudun izango ditu hura berreskuratzeko. Animalia zentroan jasota egon den artean izandako gastuak jabeak ordaindu beharko ditu. Epe hori igaro eta jabeak animalia berreskuratu ez badu, aurreko idatz zatian adierazitakoa egingo da animaliarekin.
 4. Albaitariaren txostenak animalia egoera zein osasuna txarrak direla eta bere izaera arriskutsua dela adierazten badu, animalia akabatzeko epea aldatu egin ahal izango da, eta presaz akabatu ahal izango da.
 5. Zerbitzu propio nahiz itunduan utzitako animalia identifikatuak, jabeak aldeztetik haien jabetzari espreski uko egin badiote, animaliak eskatzen dituen edonori eman ahal izango zaizkio 30 eguneko epean, gehienez ere. Horrelakoetan animalia uko egin dionak ordaindu beharko ditu jasota egon den bitartean sortutako kostuak.
- Lakiolariak lanean ari diren bitartean Agintaritzaren Agentetzat hartuko dira, ondorio guztietarako.

II. KAPITULUA. ANIMALIEN OSASUN KONTROLA

9. ARTIKULUA. ANIMALIEN OSASUN KONTROLA

1. Animalia bati gizakientzat zein gainontzeko animalientzat kutsakorra den gaixotasunen bat diagnostikatzen badiote, edo horrelako gaixotasun sintomak baditu, edo pertsona nahiz animalia bati hozka egin badiu, Udalak agindu dezake animalia hori zaintzapean eta behaketan jartzea.
Animalia baten pertsonentzat nahiz animalientzat kutsakorra den gaixotasunen bat badu (albaitari kolegiatu batek diagnostikatua) eta albaitariaren iritziz animalia akabatu egin behar bada, baimendutako sistemaren bat erabiliz akabatuko da, eta gastuak jabeak ordaindu beharko ditu. Horiez gain, gaixotasun kroniko sendaezinak edukirik jabeek behar bezala zaintzen ez dituztenak ere akabatu egin beharko dira.
2. Foru Aldundiko departamentuek edota Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak egoki ikusten dituen neurriak hartuko ditu gaixotasun agerraldiak badaude edo neurri horiek hartzea eskatzen duten bestelako egoerarik sortzen bada, eta neurri horiek animalien jabeek

bete beharko dituzte, pertsonentzat eta gainontzeko animalientzat kaltegarriak izan ez daitezten.

3. Pertsona bati edo gehiagori hozka egin eta lesioak eragin dituela frogatu zaion animaliari Bizkaiko Lurraldean animalia haginkarientzat ezarrita dagoen indarreko zaintza eta behaketapean jarriko da.

4. Aipaturiko zaintza eta behaketa aurrera eramango da, hozkada jasan duen pertsona edo bere ordezkariak Udalean hozkadaren salaketa bat jarri ba du.

10. ARTIKULUA. ANIMALIAK LEKU PUBLIKOETAN

1) Animaliek pertsoneri edo ondasunei sor diezazkiekeen eragozpenak edota arriskuak saihesteko helburuarekin, herritarrek Larrabetzuko udalari kaleko edo bertan behera utzitako animalien berri emango diete.

2) Debekatuta dago bide publikoan edo orubeetan hegaztiei, txakurrei, katuei eta gainerako kaleko animaliei janaria ematea, hori beren beregi baimendu denean izan ezik.

3) Hiriko animalia asko badaude eta horiek kontrolik gabe badaude, udal-agintariak animalien kopurua kontrolatzeko beharrezko ekintza guztiak burutuko dituzte.

4) Hiriko bide eta leku publikoetan eta eraikin kolektiboetako guztien erabilerarako zatietan, arriskutsu izan daitezkeen animaliatzat sailkatuta ez daudenak eta erasotzeagatik aurrekari erregistraturik ez dutenak, libre ibili ahal izango dute, beti ere, beraien jabe edo zainzaileen kontrol eta ardurapen, sortu ditzaketen molestia edo kalteen arduradun edo erantzule bakarrak azken hauek izanik.

5) Arriskutusak izan daitezkeen animaliei aplikatuko zaie, Larrabetzuko Udalak, 2015eko irailaren 30eko ohiko batzarrean onartu zuen eta BAO, 222. zk. 2015eko azaroaren 18an argitaratu zen Larrabetzuko animali arriskutsuen edukitza arautzen duen ordenantza

11. ARTIKULUA.- ERASO BATEN AURREAN APLIKATUTAKO PROZEDURA

1) Animaliak eragindako erasoaren salaketa edo horren berri jaso duen Udal-zerbitzuak salatzaileari edo egitateen berri-emalari erasoaren identifikazioa erraztuko duen edozein datu ematea eskatuko dio, eta hori berehala administrazio-espeditatearen izapideak egiteko arduradun agintariari jakinaraziko dio. Hain zuzen ere, agintari eskuduna animalia zein erroldan ageri eta errolda horretako Administrazioa izango da, edo, halakorik izan ezean, jabearen bizilekukoa, agiria guztiak helarazita.

2) Pertsonari egindako erasoarekin batera, hozkaden ondorioz lesioak eragin bazaizkio, izapideak egin behar dituen agintari eskudunak Osasun Saileko Zaintza Epidemiologiko Unitateari eta Foru Aldundietako Animalia Osasun Zerbitzuei hori jakinaraziko die, horiek espeditatea ireki dezaten.

Lesioak eragin dituen animalia jabeak edota edukitzaileak, 24 orduko epean, animalia berak aukeratutako albitari ofizialaren edo gaituaren behaketa-prozesuaren mende jarriko du hamalau egun naturaleko epean, txakurren kasuan. Hala ere, epea ezberdina izango da animalia-mota kontuan izanda, edo unean uneko inguruabar epizootologikoen hori egitea komenigarritzat jotzen dutenean, betiere aurretiazko ziodun txosten teknikoak aurkeztuta. Halaber, hozkada egin denetik hogeita lau ordu igaro ondoren, hori borondatez bete ez badu, orduan alkateak hori egiteko eskatuko dio, animalia animalien bilketarako zentroan sartu edota isolatuz (II. Eranskina). Agindei hori betetzen ez bada, arau-hauste larria eragingo du Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 36.2.b.1 artikulua ariora, eta hori behar bezala betetzeko beharrezkoak diren kautela-neurriak kalterik egin gabe. Edozein kasutan ere, luzatutako txostenaren edo ziurtagiriaren zenbatekoa, halakorik badago, animalia jabeak edota edukitzaileak ordaindu beharko du. Animaliak jabe

edo edukitzaile ezagunik ez badu, egitateen gaineko eskumena duen Udal Zerbitzuak hori jaso eta harrera-zentrora eramango du. Era berean, egoera horren berri emango dio Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari, animalia behaketapean eta kontrolpean eduki dezan. Behaketa hori espedientearen izapideak egi behar dituen udal eskudunari jakinaraziko zaio egitateak gertatu eta hurrengo 72 orduko epean.

Albaitariak behaketa egin beharko du zoonosi-arriskua baztertu edo antzemateko eta animalia-aren arrisku maila ebaluatzeko, kasuan kasuko emaitzaren ziurtagiria/txostena luzatuz, III. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Jabeak edota edukitzaileak, behaketa bukatu ondoren, 48 orduko epean albaitariaren ziurtagiria/txostena espedientearen izapideak egin behar dituen agintari eskudunari igorriko dio, lehenengo lerrokadan aipatutakoa, espediente horri eransteko helburuarekin. Aldi berean, albaitariaren ziurtagiriaren/txostenaren kopia bidaliko dio kasuan kasuko Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuari eta Osasun Saileko Zaintza Epidemiologiko Unitateari. Behaketa-prozesuaren ondoriozko emaitzaren arabera, osasun-arriskuak hausten badira, orduan udal- agintariak txakurra zentroan sartu edota isolatu edo egonaldi horren luzapena agindu ahal izango du.

3) Erasoarekin batera hozkaden ondoriozko lesiorik sortu ez bada, txakurraren jabeak edo edukitzaileak berak aukeratutako albaitari ofizialaren edo gaituaren behaketaren mende jarri beharko du, horrek beharrezkotzat jotzen duen epean. Gainera, ziurtagiri egokia luzatuko du eta jabeak espedientearen izapideak egin behar dituen agintari eskudunari igorriko dio.

12. ARTIKULUA.- DEBEKUAK

1.- Hona hemen debekuak:

- a) Animaliei tratu txarra eragitea edo oinazea, sufrimendua eta justifikatu gabeko larritasuna eragitea.
- b) Bertan behera uztea.
- c) Era berean, debekatuta dago ordenantza honetan jasotako animalia-espezietatik edozeinen gorpua bide publikoan bertan behera uztea. Halakorik gertatzen bada, kasuan kasuko Udal Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, egoera hori konpontzeko beharrezkoa dena bete dezan.
- d) Bizitzeko behar duten janaria ez ematea edota garbitasunaren eta osasunaren ikuspuntutik desagokiak diren establezimenduetan edukitzea.
- e) Gorputz-adarren bat moztea, albaitariak kontrolatutakoak direnean izan ezik, funtzioak betetzeko edo arrazaren ezaugarriei eusteko beharrezkoa izanik.
- f) Alkohola, drogak edo botikak ematea edo kalte fisikoak edota psikikoak ekarriko dieten edozein manipulazio artifizial egitea, lehiaketa batean emaitzak hobetzeko asmoz egin denean izan arren.
- g) Animalia-aren berezko jokaeraren aurka edo tratu iraingarria ekarriko duen moduan aritzera behartzea.
- h) Animalien borrokak.
- i) Animaliak bide publikoan hiltzea, ezinbestekoa denean eta horretarako premia gorria dagoenean izan ezik.
- j) 14 urtetik beherakoei edo pertsona ez gaiei animaliak saltzea, dohaintzan ematea edo lagatzea, guraso-ahala duten pertsonak edo tutoreak horretarako baimenik eman gabe.
- k) Animaliak bide publikoan saltzea, baimendutako azoka edo merkatuetan izan ezik.
- l) Animaliak laborategietarako edo kliniketarako saltzea administrazioaren kontrolik gabe.
- ll) Animaliak publizitaterako erakargarri, sari edo ordainsari gisa ematea, diruzko eskualdaketen ondoriozko negozio juridikoak direnean izan ezik.
- m) Babestutako espezieetako animaliak saltzea, bai eta horiek hartu edo erakustea, horien legeria zehatza kontuan izanda.

n) Animalien kakak bide eta plaza publikoetan, umeentzako parkeetan, lorategietan eta, oro har, edozein leku apaingarritan eta/edo pertsoan ibiltzeko tokietan uztea. Horregatik, txakurrekin doazen pertsonen gorozkiak jaso egin beharko dituzte eta hurbilen duten errefusaren ontzi grisean utzi.

Txakurrak gorotzak bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uzten bada, txakur-jabeak edo hartaz baliatzen ari dena izango da txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoaren erantzule, Kode Zibilaren 1905. artikulua xedatzen duen moduan; baita txakurrak alde egiten badio ere.

ñ) Ikastetxeak, salbu eta heziketa prozesuan behar badira, eta kasu honetan zuzendariaren edo zentroko arduradunaren erantzukizuna izango da.

2.- Era berean, debekatuta dago:

a) Animaliak janaria egin, saldu, biltegiatu, garraiatu eta maneiatzera zuzendutako lokaletan edo ibilgailuetan sartu eta egotea, osasun-agintariak hori baimentzen duenean izan ezik.

b) Animaliak jendaurreko ikuskizunak eskaintzen diren lokaletan, barrutietan eta esparruetan sartu eta egotea, bai eta igerileku publikoetan, osasun-etxeetan eta antzekoetan ere, hezkuntza-, kultura- edo aisia-establezimenduetan, baldin eta horien arau berezietan debeku hori jaso bada.

c) Ostalaritza arloko establezimendu publikoen jabeek, hau da, taberna, pentsio, jantoki, hotel, kafetegi edo antzekoen jabeek debekatu ahal izango dute, hala nahi izanez gero, bertan animaliak sartzea. Sartuz gero, ordea, derrigorrez eskatu beharko dute animaliek identifikazioa izatea, uhalarekin lotuta egotea eta muturrekoa ipinita, ezaugarriek eta izaerak halakorik eskatzen badute. Bestalde, ezin izango dute gaixotasun sintomarik eduki edo zikinak egon. Ezin izango da animaliarik sartu janaria egin eta manipulatzeko den lekuetan.

d) Toki komunitario pribatuetan, hau da, kultur elkarte, jolas elkarte, auzokideen komunitateen erabilerarako leku eta abarretan animaliak sartu eta egon ahalko dira, baldin eta entitate horiek dituzten arauak onartzen badituzte eta arauak betetzen badituzte.

e) Animaliak balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, teilatu laueta, lorategietan edo bestelako lokal edo hiri-lurrean ohiz edukitzea edo eskortatzea, horiek auzokoei edo oinezkoei eragozpen objektiboak eragiten dizkietenean.

f) Animalia eskortatuak edo erdieskortatuak parkeetan eta lorategi publikoetan eta hiri gisa kalifikatutako lursailetan ohi bezala egotea.

g) Laguntzako animaliak igotzeko tresnetan igo edo jaisteko, beti beste pertsona batzuk hori erabiltzen ez dutenean egingo da, baldin eta horiek horrela egitea eskatzen badute.

h) Debekatuta dago edozein animalia-espezie kanpoko esparru jendetsuetan edo jendearentzako irekita dauden lokaletan aske uztea. Are gehiago, animalia arriskutsua, basatiak eta /edo animalia kaltegarritzat edo basatitzat jotakoak, horientzat zuzendutako baldintzetatik, barrutietatik, eremuetatik edo parke zoologikoetatik kanpo egoteko debekua dute.

i) Txakurrak ezin dira lotuta eduki ondoko ondoko 8 ordu baino gehiago.

j) Txakurrak ezin dira bakarrik utzi etxean ondoko ondoko hiru egun baino gehiago.

k) Animalia bide publikoetan egon edo ibiltzen bada, eta norbaiti edo/eta ondasun publiko zein pribatuei kalterik egiten badio, nahiz eta alde egin zein galduta egon, jabea edo hartaz baliatzen dena izango da erantzulea.

l) Animalien jabe edo zaintzaileei eskatu egiten zaie bereziki zaintzea beraien animaliak herriko umeen parke edo gunetan daudenean, sintonia ona mantentzeko gune horien erabiltzaileekin (Iturrikoetxe, Gaztelumendi kale ingurua, ...)

13. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK

1) Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, itsu-txakurren laguntza duten ikusmen urrikoek toki, ostatu, establezimendu, lokal eta garraio publikoetan sartu ahal izango dira. Establezimendu horien artean, ospitaleak, dela publikoak dela pribatuak, eta osasun-laguntzarako zentroak barnean hartzen dira.

2) Ikusmen-urritasuna duen pertsonak, aurretiazko agindeiarekin, animaliaaren itsu-txakur izaera egiaztatuko du, bai eta kasuan kasuko osasun-betekizunen betepena ere.

3) Itsu-txakurra gaixorik, oldarkor, zikin, edo, orokorrean, pertsonentzat arriskuak eragin ditzakeenean, aurreko artikuluan aipatu tokietan sartzeko debekua izango du.

14. ARTIKULUA.- LAGUNTZAKO ANIMALIEN ERKIDEGO ARTEKO LEKUALDAKETAK.

Jabeek edo edukitzaileek euren txakurrak, katuak edo hudoak erkidego artean lekualdatu nahi izanez gero, toki batetik bestera aldatzeko ibilbide osoan Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 2004ko irailaren 27ko aginduan edo hori ordeztzen duen arauketan araututako pasaportea eramane beharko dute, albaitari ofizialak edo gaituak luzatutakoa.

II. KAPITULUA.- TXAKURREI BURUZKO XEDAPEN ZEHATZAK

15. ARTIKULUA.- ARAUBIDE OROKORRA

Txakurren kasuan, Euskal Herrian Txakurrak Edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan, Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999

Legea garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan, aplikatu beharreko gainerako arauketan eta aurreko tituluetan jasotakoa, bereziki, identifikazioari eta erregistroari buruzkoa, aplikatuko da.

III. KAPITULUA.- ANIMALIA ARRISKUTSUEI BURUZKO XEDAPEN ZEHATZAK

16. ARTIKULUA.- ARAUBIDE OROKORRA

Ordenantza honen 3. artikuluan definitutako animalia arriskutsuen kasuan, Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean, hori garatzen duen martxoaren 22ko Errege Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako arauketan xedatutakoa aplikatuko da.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei aplikatuko zaie, Larrabetzuko Udalak, 2015eko irailaren 30eko ohiko batzarrean onartu zuen eta BAO, 222. zk. 2015eko azaroaren 18an argitaratu zen Larrabetzuko animalia arriskutsuen edukitza arautzen duen ordenantza.

III. TITULUA. ANIMALIEKIN ZERIKUSIA DITUZTEN JARDUERAK

I. KAPITULUA.- GUNE ZOOLOGIKOAK

17. ARTIKULUA. ANIMALIEN ALDI BATERAKO MANTENIMENDUAZ ARDURATZEN DIREN ESTABLEZIMENDUENTZAKO ARAUAK

Artikulu honen barruan sartzten dira:

a) Hazkuntza eta hezkuntza zentro eta aterpetxeak.

b) Animaliak saltzeko lokalak.

c) Albaitaritzako kontsultategiak, klinikak eta ospitaleak.

Jarduera horiek guztietarako udal lizentzia beharko da, eta lizentzia hori sailkatutako jardueren araudian ezarritakoaren arabera izango da.

18. ARTIKULUA. HAZKUNTZA ZEIN HEZKUNTZA ZENTROAK ETA ALDI BATERAKO ATERPETXEAK

1. Hazkuntza zentroek, hezkuntza zentroek eta animalien egoitzek animaliaen sarrera eta irteeren erregistro liburuak eduki beharko dute. Liburuak arlo honetan eskumenak dituzten osasun agintarien esku egongo da.
2. Eraikuntzek, instalazioek eta ekipoek giro garbia sortu beharko dute, bertan dauden animaliak babestuko dituzte eta egin behar izaten diren jarduerak zoo-sanitarioak erraztuko dituzte. Halaber animaliak erraz manipulatzeko aukerak eman beharko dira eta animalien izaerari egokitu egon beharko dute, hartara animaliei bizi baldintza egokiak eskaintzeko.
3. Zentroek barruko saneamendu-sarea eduki beharko dute eta gorozkiak zein ur zikinak desagerrarazteko neurri zuzentzaile egokiak edukiko dituzte, arlo horretako araudiak jasotakoaren arabera, osasun publikoan zein inguruko osasun egoeran egon daitezkeen arriskuak gutxitzeko. Zentroetan edateko ura egon beharko du, bertan dauden animaliek zein pertsonak edan dezaten.
4. Zentroetako esparruak, lokalak zein kaiolak erraz garbitu eta desinfektatzeko moduan eta materialekin eraikiko dira. Esparru horiek gutxienezko azalera izango dute, animaliaen tamainaren arabera izango dena, animaliaen ongizatea bermatzeko.
5. Lokalak, animaliekin kontaktuan dauden tresnak eta animaliak garraiatzeko ibilgailuak, halakorik balego, garbitu eta desinfektatzeko tresnak zein baliabideak eduki beharko dituzte.
6. 20 animalia bakoitza bat eduki beharko dute gutxienez, gaixorik dauden animaliak eta gaixorik dauden susmoa dagoenean, bertan isolatu, bahitu eta behatzeko. Kaiola hauek erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak izango dira. Era berean, animalien gorpuak eta material kutsagarriak ezabatu edo desagerrarazteko bitarteko egokiak eduki beharko dituzte.
7. Zentro hauek garbitasun eta profilaxi programa definitu bat egin beharko dute albaitari tekniko batek oniritzia emanda, eta honako hau jasoko du gutxienez: behar den bakoitzean eta, gutxienez, sei hilabetean behin, animaliekin kontaktuan dauden materialak eta lokalak sakon desinfektatuko direla eta intsektuen eta arratoien kontra fumigatuko direla. Albaitari-ikusketzaile ofizialek instalazioak zein bertako animalien egoera ikuskatu ondoren osasunaren eta garbitasunaren aldetik akatsen bat ikusten badute, jardueraren titularrei akatsak zuzentzeko behar diren neurriak hartzeko eskatuko diete.

19. ARTIKULUA. ANIMALIAK SALTZEKO LOKALAK

1. Animaliak saltzen dituzten establezimenduek albaitari-aholkulari bat eduki beharko dute. Albaitari-aholkularia animalien sarrera eta irteerako erregistro liburuaz arduratuko da, eta honako hauek ere jaso beharko dituzte bertan: mota, arraza, adina, jatorria, inportazio baimenaren zenbakia, sarrera eta irteerako data, animaliaen helburua eta bestelako datu interesgarriak. Liburuak udaleko Osasun Agintaritzaren esku egon beharko du. Bizirik dagoen animalia saltzen duenak animaliaen jatorria, ezaugarriak eta osasun egoera jasotzen dituen agiri bat eman beharko dio erosleari. Edonola ere, nahiz eta saltzaileak agiri hori eman, animalia salmentaren unean detektatu gabeko gaixotasunen bat inkubatzen ari bazen, saltzaileak horren erantzukizuna izango du.
2. Animaliak saltzen dituzten lokaletako esparru, kaiola edo bestelako tokiak egokiak izan beharko dira, bertan erakusgai dauden animalien egoera egokia izan dadin.
3. Ezin izango da babestua dagoen faunako animaliarik komertzializatu.

20. ARTIKULUA. ALBAITARIEN KONTSULTATEGIAK, KLINIKAK ETA OSPITALEAK

1. Animalia txikiarentzako kontsulta klinikoak eta osasun tratamenduak eskaintzen dituzten anbulatorio izaerako establezimenduak, honela sailkatuko dira: Albaitari Kontsultategia, Albaitari Klinika eta Albaitari Ospitalea.
 - a) Albaitari Kontsultategia: gutxienez itxarongela eta kontsulta gela eduki behar ditu eta bertan sendaketa eta kirurgia ebakuntza txikiak egin daitezke.

- b) Albaitari Klinika: gutxienez honako hauek eduki behar ditu: itxarongela, kontsulta gela, ebakuntzak egiteko gela, instalazio erradiologikoak, laborategia eta suspertze-atalak.
- c) Albaitari Ospitalea: Albaitari Klinikak dituztenez gain, ospitaleratze-gela ere eduki behar du, eta bertan 24 orduko osasun-zainketa eta ospitaleratuta dauden animalien eten gabeko zainketa ziurtatu behar dute.
2. Establezimendu horiek guztiek udal lizentzia beharko dute, eta isolatuta dauden eraikinetan edo beheko plantan dauden lokaletan kokatu ahal izango dira, albaitari-ospitaleak izan ezik. Debekatua dago etxebizitza erabilerako eraikin batean horrelako jarduerarik jartzea.
3. Albaitari ospitaleek honako baldintza hauek bete beharko dituzte baimenak lortzeko: etxebizitzetatik aldentuta egongo dira, aparteko eraikin batean. Eraikina itxita egongo da, eta guneez librea ere izango du, ospitale-plaza bakoitzeko 20 m².
4. Debekatua dago honako leku hauetan aldi baterako zein aldizkako albaitari kontsultategia edukitzea: merkataritza establezimenduetan ezein bertako lokalen batean (botiketako bulegoetan, janari dendetan, ostalaritzako lokaletan eta jantokietan bereziki), bai eta animaliak saltzeko lokaletan zein animaliak babesteko elkarleen lokaletan ere.
5. Ekipamenduek zein instalazioek sektoreko arautegia betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:
- a) Lurzorua iragazgaitza, erresistentea eta garbigarria izango da.
- b) Parametro bertikalak lurzorutik gutxienez 1,75 m-ko altuera arte egongo dira alikatatuta. Gainontzekoen eta sabaiaren materialak erraz mantendu, garbitu eta desinfektatzekoak izango dira.
- c) Edateko ura, ur hotza eta beroa izango dituzte (gehienez 82^o C-ra artekoa).
- d) Hildako animalien gorpuak kentzeko baimendutako bideak erabiliko dira.
- e) Bertan sortutako hondakinak kentzeko, ontzi txikiak erabiliko dira eta une bakoitzean indarrean dauden arauak bete beharko dituzte.
- f) Animalien gorozkiak zabor-poltsa iragazgaitz eta itxietan desagerraraziko dira.
- g) Instalazio, tresna eta ibilgailuen garbiketa, desinfekzio eta desinfektazio lanak era sistematiko, periodiko eta jarduerak aginduko duen aldietan egin behar dituzte bertako langileek. Horrez gain, eta urtean behin gutxienez, lokala ofizialki baimendutako enpresa batek desinfektatu eta desinsektatuko du.
6. Albaitari klinika, kontsultategi edo ospitale bat ireki eta funtzionamenduan jartzeko beharrezkoa izango da Zuzendaritza Teknikoak albaitari profesional kolegiatu bat edukitzea eta establezimenduan burutuko diren jarduera guztiak lanbidean aritzeko baimendutako kolegiatu gaituen bidez egitea.

II. KAPITULUA. ALDI BATERAKO JARDUERAK. (ZIRKOAK, ZOOAK, ERAKUSKETA ETA LEHIAKETAK...)

21. ARTIKULUA. OSPAKIZUNAREN BETEKIZUNAK

Jarduera iraunkorretan edo aldi baterako jardueretan, lokal itxietan edo esparru irekietan egindakoak, horien helburua laguntzako animalien lehiaketak edo erakusketak egitea bada, baldintza zehatz hauek bete beharko dira:

- a) Udalaren baimen egokia izatea: aldi baterako jardueren kasuan, okupazio-lizentziei kalterik egin gabe udal-bide edota -esparru irekietan egin nahi direnean, antolatzaileek alkatetzaren baimen egokia eskuratu beharko dute, aurretiaz osasun-zerbitzuen txostena aurkeztuta.
- b) Aipatu baimenarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- 1) Jardueraren deskripzioa.
 - 2) Eskatzailearen izena, helbidea eta telefonoa. 15

- 3) Kokapena.
- 4) Jardueren garapen-epea.
- 5) Animalia-kopurua eta -espezieak.
- 6) Organo eskudunak luzatutako gune zoologiko ibiltari gisa emandako baimena.
- 7) Kasuan-kasuan jardueran parte hartzen duten animaliei buruz eska daitezkeen agiriak (jatorriaren gida, osasun-kartilla, kasuan kasuko udal-eroldan egindako inskripzioa, animalia identifikatzeko txartela, etab).
- 8) Erantzukizun zibileko aseguruia, jarduera garatzeko epea zehaztuta.
- 9) Instalazioen muntaketa egokiari buruz teknikari eskudunak luzatutako ziurtagiria, elkargo profesional egokiak ikusonetsita.

22. ARTIKULUA.- HERRI-KIROLAK

Oinarrizko osagai gisa etxeko animaliak erabiltzen diren euskal herri- kirolean, era berean, udalaren aurretiazko baimena eskuratu beharko dute, Eusko Jaurlaritzak arauz ezarritako baldintzetara eta betekizunetara egokituta. Edozein kasutan ere, garbitasun-, osasun- eta elikadura-baldintza egokiak beteko dira, bereziki, hurrengo hauek:

- a) Debekatuta dago animaliei alkohola, drogak edo botikak ematea, edo kalte fisikoak nahiz psikikoak ekar diezazkiekeen edozein manipulazio artifizial erabiltzea, hori lehiaketan parte hartzeko errendimendua areagotzeko izan arren.
- b) Idi-probetan edo antzekoetan behi-espezieko animaliek parte hartzen badute, erakunde antolatzaileak foru-organo eskudunari baimen egokia eskatu beharko dio, EAEn idien kirol-probetan parte hartzen duten animalien identifikazio- sistemak nahiz osasun-baldintzak arautzen dituen 1993ko martxoaren 11ko aginduan ezarritakoari helduta.

IV. TITULUA ZIGOR-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

23. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

1.- Administrazio-arloko arau-haustek izango dira Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean, Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 29ko 50/1999 Legean, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean, Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak gehitutako apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluan xedatutakoaren arabera ordenantza honetan halakotzat jo diren egintzak eta ez-egiteak.

2.- Administrazio-arloko arau-hausteen kasuan, artikuluko honen aurreko atalean aipatutako arauketan ezarritakoaren arabera zigorra ezarriko da, arau-haustek behar bezala identifikatu nahiz zigorrek zehatz-mehatz zehazteko ordenantza honetan jasotako arau-hausteen zehaztapenei nahiz zigorren mailaketari kalterik egin gabe.

24. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK

1. Ordenantza honi jarraituz, arau-haustek arin, larri eta oso larrietan sailkatuko dira, osasunerako dituzten arriskuak, arduragabekeria maila, sortutako kaltearen larritasuna eta berriro egin ote diren kontuan izanda.

A. Arau-hauste arinak izango dira:

- a) Errolda identifikaziorik gabeko konpainiako animaliak edukitzea, identifikatuta egotea derrigorrezkoa bada.
- b) Animaliak garraiatzea Lege eta Erregelamenduetan ezarritakoa bete gabe.
- c) Animaliak ondo zaindu eta begiratu ezin diren lekuetan edukitzea.
- d) Animaliak sortaraz ditzakeen kalteetarako erantzukizun zibileko asegururik ez izatea.
- e) AIEOari zentsurako identifikazioaren berri edota, 101/2004 Dekretuko 3. artikuluan jasotakoaren arabera, zentsuko identifikazioan izandako aldaketak ez jakinaraztea.
- f) Aurkeztutako albaitari-ziurtagiria edo/eta ziurtagirian jasotako datuak gezurrezkoak izatea.
- g) Animaliei tratu iraingarria ematea edo haien izaerari ez dagozkion jokaerak edo jarrerak edukiaraztea
- h) Ordenantza honetan zein bestelako lege eta araudietan xedatutako bete behar eta debekuak ez betetzea, egin den arau haustearen izaera dela eta bestelako kalifikazioaren bat duen kasuetan izan ezik.
- i) Bide publikoan hegaztiei, txakurrei, katuei eta gainerako kaleko animaliei janaria ematea

B. Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Animalien gorozkiak bide zein plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, leku apaingarrietan eta pertsonak ibiltzeko lekuetan uztea.
- b) Garbitasun eta osasun egoeraren aldetik egokiak ez diren lekuetan animaliak edukitzea, janaririk eta beharrezko osasun asistentziarik gabe.
- c) Animaliak antzutea, gorputz atalen bat moztea eta akabatzea albaitariaren kontrolik gabe edo legeek zein araudiek ezarritako baldintza eta eskakizunetan ezarritakoaren kontra.
- d) Ez txertatzea eta derrigorrez eman beharreko tratamenduak ez ematea.
- e) Animaliak baimenik gabe saltzea.
- f) Ordenantza honen ezarpen eremuan dauden animaliak aldi batean edukitzea, hazi edo saltzea, Legeek zein Araudiek ezarritako baldintza eta eskakizunak bete gabe.
- g) Animaliei tratu txarrak ematea, alferrik sufriaraziz, zaurituz edo gorputz atalen bat moztuz.
- h) Animaliei alferrikako sufrimendua eta kalteak eragiten dizkieten substantziak ematea zuzenean zein janariaren bitartez.
- i) Kalteak eragin ditzaketen animaliak behar bezala ez zaintzea eta behatzea.
- j) Animaliak min larriak eta nabarmenak dituela jakin eta albaitaritza asistentzia egokirik ez ematea.
- k) Administrazio-baimenik ez duten ikuskizunetan animaliak erabiltzea.
- l) Arriskutsua izan daitekeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animalia bat solte lagatzea edo bere ihesa edo galbidea ekiditeko beharrezko neurriak hartu ez izana.
- m) Arriskutsua izan daitekeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animalia identifikatzeko bete beharra ez betetzea.
- n) Arriskutsua izan daitekeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliatzat katalogatutakoa leku publikoetan muturrekorik gabe edo katearekin nahiz uhal ez luzagarriarekin lotua ez ematea.
- o) Arautegi honetan edo ezartzen den beste legerian zehazten diren bete beharreko funtzioen arabera, agintari eskudunak edo agenteak eskatutako informazioa ez ematea, informazio emateari aurka egitea, zehaztugabeko informazioa edo informazio faltsua ematea.
- p) Zigor espedientea hasi aurreko bi urteetan zehar hiru arau-hauste arin egin izana, baldin eta zigorra ezarri bazaio erabaki irmo bidez.

C. Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Jabeak txakur biltegian (dela propioa nahiz itundua) jasota dauden animalien ardura hartu nahi ez izatea, nahiz eta jabea identifikatua egon.
- b) Animaliak era bortitzen batean edo substantzia toxikoak emanda akabatzea.
- c) Konpainiako edo etxeako animaliak abandonatzea.
- d) Animalienaganako krudelkeria, tratu txarrak edo animalien sufrimendua islatzen duten eszenak grabatzea.
- e) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesia, drogak eta abar ematea, horien bidez haien berezko portaera guztiz kontrako bihurtu ahal izateko.
- f) Pozoitutako janaria lagatzea bide eta espazio publikoetan.
- g) Animaliak debekatutako ikuskizun publikoetan erabiltzea.
- h) Arriskutsua izan daitekeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko edozein motatako animalia. Jaberik ez duena, helbide ezagunik ez duena, datuak ezagutzeko identifikaziosistematik ez duena eta erroldatua ez dagoen animalia abandonatuztat hartuko da. Baita ere, abandonatuztat joko da, nahiz eta erroldatuta egon, bere desagertzea arautegiak ezartzen dituen epeetan salatu ez dena edo bide publikotik jaberik gabe dabilena.
- i) Gaitasun ziurtagiria ez duen pertsonak arriskutsuak izan daitezkeen animaliak trebatzea.
- j) Arriskutsuak izan daitezkeen txakur edo animaliak baimenik gabe edukitzea.
- k) Lizentzia ez duen norbaiti arriskutsua izan daitekeen txakur edo animalia saltzea edo transmititzea.
- l) Animaliak bere oldarkortasuna areagotzeko edo debekatuta dauden ekintzetarako trebatzea.
- m) Animalien oldarkortasuna frogatu nahian arriskutsuak izan daitezkeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliekin lehiaketak, ariketak, erakusketak eta ikuskizunak antolatzea, egitea edo bertan parte hartzea
- n) Zigor espedientea hasi aurreko bi urteetan hiru arau-hauste larri egitea, atzera bota ezineko erabakiaren bidez ordaindu beharreko zigorrarekin.
- o) Zakur-arraza arriskutsuak haztea edo nahastea.

25. ARTIKULUA. ZIGORRAK

1) Ordenantza honetan jasotako arau hausteei 60,10 € eta 15.025,30 € arteko isunak jarriko zaizkie, eskala honen arabera:

- Arau-hauste arinak: 60,10 € eta 300,50 € artean.
- Arau-hauste larriak: 300,51 € eta 1.502,53 € artean.
- Arau-hauste oso larriak: 1.502,54 € eta 15.025,30 € artean.

Isunen zenbatekoa urte osorako izango da eta urtero automatikoki KPI-ren arabera errebisatuko dira.

2) Arau-hauste larrien edo oso larrien kasuan instalakuntzak, lokalak edo establezimenduak denboraldi batez itxi daitezke. Arau-hauste larrien kasuan gehienez ere bi urtez itxiko dira eta arau hauste oso larrien kasuan, berriz, gehienez lau urtez, eta animaliak erostea galaraziko zaio lau urtez.

3) Arau haustea egin duenak, egindako arau haustearengatik jarriko zaion zigorrak gain, arau hauste horrengatik udalari sortzen zaizkion gastu guztiak ere ordaindu beharko ditu.

26. ARTIKULUA. ZIGOR GEHIGARRIAK

1. Zigor espedientea hasita, arau-hauste gehiago egitea saihesteko asmoz, honako zuhurtasun-neurri hauek hartu ahal izango dira:

a) Animalia-aren batek ondoko zerrendan jasotako egoeraren bat bizi izan duela susmatzen baldin bada, animalia-aren zaintza eta ardua kendu egingo zaio jabeari:

—Behar bezala alojatuak eta elikatuak ez dauden animaliak.

—Albaitariaren tratamendurik gabe gaixo eta/edo zaurituak dauden animaliak.

—Pertsonentzat gaixotasun kutsagarriak dituztenak.

—Gaixotasun kroniko larri edo sendaezinen bat dutenak, gorputz atal mozketak mingarriren bat, oinaze larri eta itzulezinen bat dutenak.

b) Instalazioak, lokalak edo establezimenduak prebentzio moduan ixtea. Zuhurtasun neurriak ez dira etengo harik eta horretarako arrazoiak desagertzen ez diren bitartean. Neurri hauek ez dira luzaraziko espedientearen ebazpen irmoa baino areago, salbu eta ezarritako zigorrak instalazioa epealdi jakin batez ixtea badarama.

2. Isunak borondatezko epean zein premiamenduzko bidea erabiliz kobratuko dira, toki-arabidean ezarritakoaren arabera.

3. Arau-hauste arinak lau hilabeteren buruan preskribatuko dira, larriak urtebeteren buruan eta oso larriak bi urteren buruan.

Arau-haustek 3.505 € baino gutxiagokoa badira, urtebeteren buruan preskribatuko dira, eta bost urteren buruan, aldiz, aipatutako kopurukoa edo handiagoa izanez gero.

27. ARTIKULUA. ZIGORRAK MAILAKATEZA

Isunen zenbatekoa neurtzeko eta aurreko artikuluan ezarritako zigorren iraupena zehazteko, honako zirkunstantzia hauek hartuko dira kontuan:

a) Arau-haustek gizarte-mailan eta osasunean izandako eragina eta ekarri duen kaltea.

b) Legez kanpoko irabazi asmoak eta horren bitartez izandako irabazien kopurua.

c) Arau-haustek behin eta berriro egitea. Arau-haustea berriro egin dela esaten da lehendik ere, zigor-espedientea hasi aurreko bost urteen barruan Ordenantza honetako arau-hauste bat dela eta zigorra ezarri izan bada administrazio bideko erabaki irmoaren bidez.

d) Arau-haustearen gaitzesgarritasun mailan (larritasuna emanaz) eragina izan lezakeen beste edozein gorabehera. Horretarako, modu berezian kontuan hartuko da adin txikikoen aurrean animalien kontra erabilitako biolentziak.

Ekintza berak bi arau-hauste administratibo edo gehiago ekartzen baditu, zenbateko handiena daukan isuna ezarriko zaio. Espedientea izapidetu eta ebazteko organo aginpideduna ahalmen zigortzailea duena izango da.

28. ARTIKULUA.- ZIGOR-ESKUMENA

1. Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/93 Legean jasotako foru-organoen zigor-eskumenari kalterik egin gabe, arau-hausteen zigorra, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, udalak ezarriko du.

2. Arau-hauste arinak ebazteko organo eskuduna, indarreko legeriak udalari eratzkitako ahalmenen barruan, alkatetza-udalburutza izango da.

3. Arau-hauste larriak ebazteko organo eskuduna Osoko Bilkura izango da. Halaber, arau-hauste larrien gain zigorra ezartzeko eskumena toki-gobernuari eskuordetuko zaio. Bestalde, alkatetza-udalburutzak arau-hauste larrien ondoriozko espedienteak hasteko eskumena izango du.

4. Arau-hauste oso larrien gaineko zigorre dagokienez, foru-organoen eskudunak ezarriko ditu.

29. ARTIKULUA.- KAUTELA-NEURRIAK

1. Arau-hausteen ondorioz delitua edo falta egin bada, zigorra ezarri behar duen administrazio-organoko eskudunak zigor-arloko jurisdikzioari horien berri emango dio, eta zigor-prozeduran ez du parte hartuko ebazpen judizial irmoa adierazten ez den bitartean. Gainera, ordu arte preskripzio-epea etenda geratuko da.

2. Esku-hartze judiziala gertatu baino lehenagoko administrazio- espedienteak instruitu behar dituzten agintariak hartutako kautela- neurriek indarrean iraungo dute, agintari judizialek esanbidezko adierazpenik egiten ez duten bitartean.

3. Zigor-espedientea hasi ondoren, eta arau-hauste berriak sortu ez gertatzeko xedearekin, espedientearen instruktoreak kautela-neurri hauek zioz hartu ahal izango ditu:

a) Animaliak aurreneurritz ateratzea, baldin eta lege honetan jasotako inguruabarretatik edozein jasan dutelako zantzuak badaude, eta, animalien bilketarako zentroan sartu ondoren, horiek zaintzea.

b) Instalazioak, lokalak edo establezimenduak aurreneurritz ixtea.

4. Kautela-neurriek horiek hartzeko arrazoiek irauten duten epean indarrean iraungo dute.

Dena den, animaliak ateratzeko neurria ezin izango da luzatu espedientearen ebazpen irmoa eman ostean, eta instalazioak itxita izateko epeak ere ezin izango du gainditu izan Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 29-2 artikuluan ezarritako epearen erdia.

30. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEEN ETA ZIGORREN PRESKRIPZIOA.

1. Ordenantza honetan ezarritako arau-hausteak modu honetan preskribatuko dira: arinak, lau hilabeteko epean, larriak, urtebeteko epean, eta oso larriak, bi urteko epean.

2. Arau-hausteen preskripzio-epea horiek egin diren unetik zenbatuko dira.

3. Zigorren preskripzio-epea bost urtekoa izango da horien zenbatekoa 305,00 eurokoa edo handiagokoa denean, eta, urtebeteko epean, zenbateko hori baino txikiagoa denean.

4. Zigorren preskripzio-epea zigorra ezartzeko eman den ebazpena irmoaren egunaren biharamunetik zenbatuko da.

31. ARTIKULUA.- ZIGOR-ESKUMENA

Zigorrek ezartzeko organo eskuduna toki-gobernuaren batzordea izango da.

32. ARTIKULUA. ZIGOR- PROZEDURA

Titulu honetan araututako arau-hauste guztien zigor-prozedura Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarri zigor- prozeduraren printzipioetara egokituko da, eta goiko ataletan zehaztutako xedapen bakoitzaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigor-ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea edo zigor-ahala egikaritzeko Erregelamendua onetsi duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua aplikatuko da.

33. ARTIKULUA.- AIEOri EGIN BEHARREKO KOMUNIKAZIOA.

Zigor-organoko eskudunak AIEOri zigor-prozedura amaitzen duen ebazpenaren kopia igorriko die.

INDARGABETZE XEDAPENA

Ordenantza honetan ezarritakoarekin bat ez datozen bestelako udal-ordenantzak, arautegiak zein bandoak indargabetuta geratzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, hori behin betiko onetsi ondoren, indarrean jarriko da hori oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hamabost egunetan.

Horrez gain, Larrabetzuko udalaren webgunean argitaratuko da.

Ordenantza honen eta 2015eko zementiaren 18an BAOn argitaratutakoaren artean kontraesanik egon ezker ordenantza hau izango da aplikagarri.

ERANSKINA

IDENTIFIKATU GABEKO ANIMALIA LAGATZEKO AGIRIA

Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 16. artikuluan eta Animaliak Eduki eta Babestea arautzen duen Udal- ordenantzaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, aldi baterako pertsona honi lagatzen zaio:

_____jn./and.ri, _____NAN zenbakia duenari.

_____ helbidea duenari
(Probintzia: _____) hurrengo telefono-zenbakiarekin: _____ eta helbide elektronikorekin: _____, _____ erregistro-zenbakia duen animalia edukitzea, ezaugarri hauekin:

Arraza: _____ Geruza _____ Kolorea _____ Sexua _____

Portaera _____ Adina (gutxi gorabehera) _____

_____ eta zentroaren sarrera-data hau duena _____, identifikaziorik izan gabe.

Behean sinatzen duenak animalia zaindu, eta, animalia jabe legitimoa dela modu sinesgarrian egiaztatzen duen hirugarren pertsona agertzen denean zentrorantz itzultzeko konpromisoa hartzen du.

Era berean, Animaliak Eduki eta Babesteari buruzko udal- ordenantzaren 5-1 artikuluan eta ondorengoetan ezarritako kasuetan, zentrorantz hilabeteko epean identifikaziorako mikrotxipa jartzera (animalia zentroan sartzen denetik zenbatuta) joateko edo mikrotxip hori beste zentro edota albaitari-klinika batean ezarri dela egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen du.

n, 200 (e)ko ren (e)(a)n

Irakurrita eta onartuta: (Animalia lagapena onartzen duen pertsonaren sinadura)

II. ERANSKINA

ANIMALIAK ERASOA EGITEN DUENEAN BEHAKETA EGITEKO NAHITAEZKOTASUNAREN JAKINARAZPENA

Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalek, beste batzuen artean, pertsoneri eraso egin dieten animaliak isolatu edota zentroan sartzeko agindua eman beharko dute, horiek behaketa-prozesuaren mende jar daitezten.

Gisa bertsuan, Animaliak Eduki eta Babestea Arautzen duen udal- ordenantzaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lesioak eragin dituen animalia jabeak eta edukitzaileak bete beharreko prozedura zehazten da, bai eta zigorra ere, hori betetzen ez bada.

Aurrekoaren ariora, hurrengoa adierazten da:

Lehenengoa:

jn./and.ak,

NAN zenbakia duenak, helbidearekin, eta telefono-zenbaki honekin: , eraso eragin duen animalia jabea edota edukitzailea den aldetik, identifikazio-zenbakia duena (halakoa duten animalien kasuan), arrazakoa, 24 orduko epean berak aukeratutako albaitari ofizialaren edo gaituaren behaketa-prozesuaren mende jarri behar duela, hamalau eguneko epean. Behaketa hori amaitu ondoren, 48 orduko epean, Larrabetzuko udalari albaitariaren ziurtagiria/txostena bidaliko dio.

Bigarrena: Jasotako informazioari buruzko argibideak edo informazio gehiago nahi izanez gero, Larrabetzuko udalara jo behar da.

n, 200 (e)ko ren (e)(a)n

Irakurrita eta onartuta: (Jabearen edo edukitzailearen sinadura) 24

III. ERANSKINA
TXAKUR HOZKARIEI BURUZKO ALBAITARIAREN TXOSTENA

Albaitaria:..... Elkargokide-
zenbakia:.....

Helbidea:.....Telef.:..... ANIMALIAREN DATUAK

ZIURTATZEN DUT:

Adierazitako animalia zaintzapean eta behaketa-prozesuaren mende egon dela, eta azterketa
..... egunetan egin ondoren, zoonosi- gaixotasuna eragin dezakeen sintomarik ez
duela. Horrenbestez, behaketa- eta zaintza-prozedura amaitutzat jotzen dut.

Sinadura eta zigilua

Tokia eta data: